

## GUDARIA

Karlistadako gudan gertatutakoa.

Patxi-guzur, karlistadako gudan, Gipuzkoako mendietatik zehar ibili zan. Behin baten, sa-beleko min apur bat be baeukala eta sopa beroa jatea ondo etorriko jakola eta... han mendi magalean ikusten zan baserrira joatea erabagi eban.

Urrunetik ikusi eban etxeko andrea, erropa zaharrez jantzita, arta jorran, erreka baztarreko soloan.

—Berari begiratuta ezin da pentsatu zopabero asko egiten jakingo dauanik —inoan bere arterako eta zantzo eginaz esan eutsan:

—Eup!! Gudari zintzo, «goseakileri» zopa beroa emoteko borondaterik bajeukona?

—Oba ez! «geutarrei» zopa beroa ez eze oilasko izter egosie be bai; sartu, sartu barrura eta jezarri sukaldeko «txisiluan», laster baten noa eta.

Sartu zan Patxi-guzur sutondora, hiru-lau abarrez egindako «aingerusuari» putz egiten hasi zan.

—Andra koitada honen itxurea ikusi ta... su honen «pentsuetan» dagoen saldea... ez dakit ba ganorazkoa izango bada —inoan Patxi-guzurrek bere barrurako.

Hamabi barriak, baselizan, joten hasi ziranerako etorri zan atsoa etxera.

—Gaur arrain zopa gozoa jango dok —Patxi-guzurreri esan eta mahai ganean plater-sakona ipini eban; gero koilara bi eta urez betetako pitxarra ere ipini ebazan.

Esarri ziran, bakoitza albo banetan eta atsoak sutondoko lapikotxan egoana, plater sakonera atera eban.

Patxi-guzur adi egoan eta lapiko barruan zeozer gelditu zala konturatu zan. «Gero jateko arrankarie izango dok» —pentsatu eban.


Hau esan, bestea kontau, astiro-astiro, orain zuk eta gero nik, plater-sakoneko «ur-bedeinkatua» itxurako «zopa» tristeja jan eban.

—Gozo be gozo egon dona —esan eutsan Patxi-guzurrek atsoari—. Orain arrankari apur bat... eta... nehiko.

—Zer dinok? Arrankari apur bat, non jauk ba?

—Hor, lapikotxan itzi don.

—Bai zera! Hor jaukena errekako harri bobile dok. Arrankariek ezin joazak harrapatu eta harri horren gainean egoten dozaken lez... ba usaintxoa eta... koipea be gantzatuko jentsiek eta... berorregaz egiten joat arrain-sopea. Gero, barriro errekan itziko joat eta bihar... Hara ba zer gertatu jakon gure Patxi-guzurreri. Lehen baino gose gehiagogaz itzuli ei zan mendi tontorrera; hori bai, SABELKO MINA KENDUTA. ■



MAIPA

Uribeke auzunean, Iturria eritxon base-rian, Kontxe, bere senar Anton eta honen ama —Kontxeren amaizea— zan Pelipa bizi ziran.

Zertan esanik be ez dago Kontxe eta Pelipa —amaizea eta erren askori jazotzen jaken lez— ez zirala ondo konpontzen.

Pelipak, auzoakaz, beti eragoion hizketa bardina: «Gure Kontxe izan be alperragoa da! alperragoa! Erosiko prezioan pozik salduko neunke, neuria balitz.»

Kontxek ostera, beste hau esaten eban: «Hemen munduan iñork eroatekotan kurutzeta, neuk daroat! Nire amaizea inpernuko deabrue bera baino be, okerragoa da; nire gizon pepeloa barriz... haren esanak egin ezinik «eperdie galdu beharrean»!

Behin, itzelezko matrakea egin eta gero, Pelipa solora joan zan eta Kontxe, negar baten, balkoipean goruetan hasi zan. Halako baten, Manutxo eskekoa heldu zan. Negar zotinak entzun eta esan eutsan:

—Ene Kontxe! Zer dala ta hainbeste negar? Beintzea hil egin jatzue ala?

—Bai zera! hori bakarrik balitz dana... Nire amaizegaz hasarratu egin naz.

—Ez jata txoketan! Zulako neska polita ezkondu be ezan egin behar holako lekura eta... Zein izan da arrazoia ba?

—Ba, betikoa... Alper bat nazela, goruetan be ez dodala egiten eta... errazoi faltarik ez dauka eukin. Badakizu, nik neure gazte aroan ez neban baten be, goruetan egin... «miske» hazi nintzan eta... Orain, ezkondu nazenean, nire senarrak nik goruetan egitea gure dau ta... nor esan hareri eta bere amari ez daki-dala?

—Hori konpontzeko neu naz nehiko.

—Ez da egia izango! Zelan baie? Goruetan ikasteko edade txarra daukat, beti-beti atzamarra odoletan ipinten dot.

—Ez, ez dozu goruetan ikasi behar. Zuk entzun adi-adi eta neuk esandako guztia egin:

Beitu, Gabonak pasatu barri dagoz bai eta karakol-azalak nora bota zenduezan gogoratu-ko zara ezta?

—Bai, oilategira.

—Beno ba, zoaz bertara eta «almuada-azal» baten sartu egizuz. Gero, almoada azal hori, medi kordel bategaz lepoan lotu egizu; ulertu dozu?

—Bai.

—Ondo dago, orain zure senarrari deitu egiozu, beste guztia neure konture itzi.

Egin eban Kontxe Manutxok esandako guztia.

—Zer behar dok? —esan eutsan Anderrek Manuri—.

—Behar... behar ezer ere ez. Mesede bat eskatu nahi deutsut.

—Esan ba —erantzun eutsan Manuk.

—Asun pilo bat hartu eta lepoan «plegazinoak» emoiztezak, hazur guztiak minduta jaukadazak eta.

—Hori bakarrik badok, laster egingo joat.



Hartu ebazan Anderrek, laburre ondoko asuntzetik, esku bete asun, kordel bategaz lotu eta hasi zan «plegazinoak» emoten.

Lehenengoz ukutu eutsanean, lepoan itza-  
lezko hazur-karrazia entzun zan. Bildurtu zan  
Ander eta eskekoari esan eutsan:

—Hi, ze garrasi dok hori?

—A, hori? ez adi estutu, hori ez dok ezer.


Baina emonago eta gogorrago entzuten zi-  
ran hazur garrasiak.

—Hi, nik ezin joat jarraitu; hire hazurrak  
apurtuta jauzak —esan eutsan bildurtuta Ma-  
nuk—.

—Ez, apurtuta ez —erantzun eutsan eske-  
koak—. Badakik zergaitik jauzaken holan?  
Ba... gaztetan gorulari ona nintzoan bai... eta  
goruetan ekin eta ekin ibilten nintzoan eta...  
beituik orain, zaharzaroen hazur guztiak apur-  
tuta.

—Ez dok hori egia izango!! Hori holan bada,  
gaurtik aurrera, nire emazte politak ez dau ge-  
hiago gorurik hartuko.

*«Eta beitu zelan suerteak berez etorri behar dau,  
eskeko bateri esker Kontxek ez eban gehiago gorurik  
hartu.»* ■



ERREGINA

Pedro-bizer, gizon zelebrea inor izatekotan,  
gazteei beti «ulea-hartzen» ibilten zan. Halan  
da guztiz ere, beti, gazte pilo bat eukiten eban  
bere inguruan, bere zelebrekeriekaz barre egi-  
teko prest.

Behin, gabonetako oporretan, Madrilen  
lege-gizon ikasten egozan ikasle bigaz aurkitu  
zan Atxuriko taberna baten. Ezagutu ez eba-  
zan egiten baina Madrileri buruz berbetan  
egozala konturatu zanean, hurreratu eta esan  
eutsien:

—Madrildarrak ala?

—Ez ba, izatez Atxurikoak, Madrilen ikas-  
ketak egiten.

—A! Orduen zuok..., «nozoz» Erreginea  
be ikusiko zenduen, ezta?

Ikasleak, alkar kinu egin eta esan eutsien:

—Erregina? Bai, egun guztietan.

—Kontxo!, egun guztietan? Orduen zuok,  
haren morroiak zarie?

—Kia! ez, jazoten dana zera da, gure etxea  
Erreginaren jauregiaren aurrez-aurre dago eta  
Erreginak, egunero-egunero, leihora urtetan  
dau eta hantxe ikusten dogu.

—Polite da? Mutilek zuek daukazue suer-  
tea!! Nik neuk be, hil baino lehenago, gure  
neunke Madrileko Erreginea ikusi.

—Ez zaitetz arduratu gizontxo, hori laster  
konponduko dogu. Urlien egunean Madriler  
itzuliko gara eta zu, geugaz etorriko zara, geu-  
re etxera.

Zertan esanik be ez dago, gure Pedro Bize-  
rrek hartu eban poza zelakoa izan zan. Bien bi-  
tartean ikasle biak planak egiten hasi ziran;  
—izan ere esandako guztia guzurra zan.

—Etzok ardure —esan eutsan batak bes-  
teari—. Antonio Gutiérrez'en aita jauk Erregi-  
naren zaldi zain bai... ta berak lagunduko jeus-  
kuk.

—Pazil esan dok, eta Erregina leihoan zelan  
ikusiko jok ba? ez jauk inoiz leihora urtetan  
eta!

—Ez ei horrenbeste arduratu! Hik itzi neure  
konture.

Amaitu ziran oporrak eta han joiazan hiru-  
rak Madrilerantz —ikasle biak eta Pedro Bi-  
zer—. Pedro Bizer «Dotor Pinto» bera baino  
be dotoreago joian, «arran» da guzti.

Heldu ziran Madriler eta ikasle bihurri  
biak, zer uste dozue egin ebela? Ba, sartu eben  
gauak luzeak zirala eta... halan euki eben hiru  
egunean, erdi lotan, ez jaten ez edaten emon  
barik; hirugarren egunean balkoira atera eta

aurrez aurre egoan palazioko leihoa erakutsiz esan eutsien:

—Zuhur egon hadi! 5 minuto barru agertuko da Erreginarean aurpegia leiho haretan.

Pedro Bizer begiak ere mogitu barik egoan, geldik, taketan lez. Laster ikusi eban, ikusi be, han agertu zana. Zer zan? Ba Antonio Gutiérrezen *eperdia* —ikasleek hori egiteko esan eutsien eta—.

Ikasleak, Pedro Bizerren atzean egozan, zuhur, ha ikusterakoan zer esaten edo zer egiten eban ikusteko eta bere konture barre egiteko, baie... txarto urten eutsien.

Pedro Bizerrek, tenpleu-tenpleu ikusi eta gero, esan eban:

—Oño!! Arpegi ederra benetan!! Baie... Erreginea ez da euskaldunen errazakoa.

Ikasleak, harrituta, esan eutsien:

—Ta hori zelan dakizu ba?

—Ba erreza dok, begiratu egiozue ondo eta ikusiko dozue guk, euskaldunok, agoa belarritik belarrira zabaltzen dogula eta Erreginarena goitik behera zabaltzen dala.

Ahor ba zelan, barrero ere konturatu barik, gure Pedro Bizerrek «*azak*» emon eutsiezan. ■



GORBEIAKO SAIE

Juantxo artzainak sarritan entzunda eukan saiek, baraurik, denpora asko iraun eikiela. «Laster jakingo dot hori holan dan ala ez»

—pentsatu eban behin—. Saiek, Gorbeiaiko ze tokitan lurreratzen ziran berak baekian eta baekian, baita be, behin lurreratu ezker, barrero hegaz jartzeko haitz baten gainetik hartu behar ebela hegazkadea.


Joan zan ba saiek egozan lekura eta bat, lodiena bera, hartu eban. Eroan eban bere artzain txabolara eta gaztaiak sikatzeko eukan tokira sartu eban. Han euki eban, sai koitadue, hile baten, ez jaten ez edaten emon barik. Hilabete igaro zanean, zabaldu eutsan atea eta... han egoan saie, bizi-bizirik.

—Orain haitz baten gainean ipiniko zaitut barrero hegaz egin dagizun —saieri, maitekiro, esan eutsan—. Baina lehenago «talaparea» (talok erretzeko tresna) eskegiko deusut «samatrutzetik», halan, ikusten zaitudan guztietan, zein zarean eta bizirik zagozan jakingo dot.

Esan eta egin, lotu eutsan talapara hori eta haitz punte zorrotz baten gainean ipini eban (saie). Berehala galdu zan saie Zeruan eta Juantxoren «begi-bistatik» aldendu.

Handik urte bete barru, San Antonioak zirala eta Juantxo Urkiolara joan zan. Eguerdi ostean, pagopean, siestatxoa botatzen egoala, arpegia estaltzeko eukan txapel gainean zeozer ohartu eban. Txapela kendu eta... zer uste dozue ikusi ebala? Ba «Talaparadun saie» bere ondo, ondoan; berak ipinitako talapara ta guzti.

Urkiolan, dagoan «Zerutik jausitako», harri gainean ipini eban eta berak —Juantxok— esaten dauan lez, saie, irribarreka- irribarreka, Zeruan desagertu zan. ■



## ODOLOSTEAK

—Gure txarriek bai dozakela erraza onekoak —inotsan Felixek Pedrori—.

—Hire txarriek? Zer jaukiek ba gureak ez jaukienik?

—Ba gure txarriek odolosteak eta buzken-tzak eginda jakardiezak. Txarrie hil, odolosteak atera eta... eskegi.


—Hori ezinezkoa dok, mutil! Odolosteak txarrie hil eta gero egiten dozak! Arroza eta porrue eta... odola botata.

—Ba beituik, nik txarriei, hil bezperan, arroz egozie emoten jeutsiet jateko eta hurrengo egunean, txarrie hil eta gero... ba odolosteak eginda eta bero-bero urtetan jauriek.

—Eta gozoak izaten dozak?

—Hori ez jakiak nik! Odolosteak Bilboko sendeentzat izaten dozak eta...

—«Badakik» ba, heurek be Gabon-Otzara ederra ekarten jauriek eta... ■



## APOSTOLUAK

Behin, Bilbotar bi Getarira joan ziran «Mariskada» egitera. Bertara heldu eta han dagoan estatuaren aurrez-aurre jarri ziranean, batak besteari esan eutsan:

—Hi, beituik, «*Sanson'en*» estatua.

Baita zera be! Ez dok Sanson, «*Elkano*» dok.

—Bardin dok, biak apostoluak izan zoazan eta!! ■



«SANTA MAINE»

Santa Maine batzuetan, Ubideko andra «malbako» batek esnea egosten ipini eban. Lan hau lehenengoz egiten eban eta esneak egosteko ganazka egin behar ebala ez ekian. Esnea ganazka hasi zanean:

«Santa Maine» gloriosea  
gitxi eukinen, asko emoilea.

Esan eta mazkilu handiagoaren bila, auzora joan zan. Barrero etorri zanean, mazkilua «ganaz-ganazka» hutsituta aurkitu eban. Orduan haxe esan eban:

«Zeuk emon eta zeuk kendu,  
zeuk gure dozuna egizu.» ■